

4. IRABAZI – ITURRIAK

Irabazi horiek aktiboen salmentaren bidez eta alokairuaren bidez lortuko ditugu.

- **Aktiboen salmenta:**

Irabazi iturriei buruz hitz egiterakoan, esan beharra dago gure produktuak prezio finko bat izango duela, hau da, ez dela aldatuko. Izandako gastuak kontuan hartuta, hots, karritua egiteko ordaindu behar izan dugu, hortik abiatuz gure produktuaren hasierako prezioa jarriko diogu. Prezio hori finkoa izango da, baina denbora aurrera joan ahala, gure produktua izandako arrakasta kontuan harturik, baliteke prezioa igotzea edota jaistea, noski.

- **Alokairua:**

Sasoiko elbarrituei zuzenduta dago batez ere; izan ere, pertsona hauek ez dute zertan karritua erosi behar haien gaixotasuna denbora baterako soilik bada, hori dela eta, gure produktua alokatzeko aukera eskaintzen diegu.

- **Irabazi motak:**

Gure bezeroei ordaintzeko bi aukera emango dizkiegu:

- Alde batetik ordainketa bakarra, hots, diru guztia aldi batean ordaintzea.
- Beste alde batetik ordainketa errepikaria, bertan, diru kantitate bat ordaintzen da epeka, beti ere bezeroei erraztasunak emateko helburuarekin. Irabazi horiek aktiboen salmentaren bidez eta renting-aren bidez lortuko ditugu.

Gure aurreikuspenetan pentsatu dugu hauek izan zitezkeela gure proiektuaren diru – sarrera bakoitzaren partaidetzaren portzentajea:

- Aktiboen salmentei dagokionez %75a izango da.
- Alokairuei dagokionez gainerako %25a.